

## **BALIO PROPOSAMENA**

### **Zer behar edo arazo konpontzen duzue?**

Hidroalkolaren ondorioz gure eskuak ondatzen dira, aldiz, asmatutako produktu honek eskuak osasuntsu eta garbi (bakterio guztiak hilda) edukitzea errazten digu. Beraz, gure produktuak bakterioak hiltzeaz ez ezik, produzitzeko erabiltzen diren materialei esker ez ditugu eskuak ondatuko. Egunerokotasunean erabiltzen dugun gelaren helburua berdina da baina fuk proposatzen dugun hau bertsio berri eta erosoago bat da.

### **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Berritasuna: Inoiz arte ez dugu horrelakorik entzun; hori dela eta, produktua berria dela uste dugu. Funtzioa beste produktu batzuk betetzen duten berdina da (eskutik bakterioak ezabatzea) baina bertsio hobetua eta askoz erosoago.

Formatua eta diseinua: Betiko mugikorfunda baina orain funtzio berri batu duena: bakterioak hiltzen ditu. Zure mugikorfunda gogokoena aukeratu dezakezu eta bertan txertatu ultravioletak.

Materialen jatorria: Bai mugikor funda produzitzeko, bai gel hidroalkola produzitzeko erabiltzen diren materialak ingurumenarekiko arduratsuak dira. Mugikor funda egiteko berrerabilitako plastikoarekin produzitzen da.

Erabilgarritasuna: Gaur egun ezinbestekoa dugun funtzioa dauka. Eskuak garbitu behar ditugu, izan ahal ditugun bakterioak edo birusak ezabatzeko.

Erosoa: Gelaren erosotasuna ez da existitzen; azken batean, eskuak poltsikotik atera behar dituzue eta gela eman. Gure produktuarekin eskuak poltsikoan izanda ere, bakterioak desagerreraiziko ditu.

Bezeroekin tratua: tratu egokiaren salduko dizkiegu gure produktua, guri edozein dendetan tratatzea gustatzen zaigun moduan. Haiei ondo azalduko diegu produktuaren funtzionamendua.

Enpresa familiarra gizartearen ongizatea helburua duena. Enpresa 5 neska sortu dugu eta askotan hitz egin dugu, denda batzuetan jasotzen duzun zerbitzu txarrari buruz, beraz, guk jaso nahi genukeen zerbitzua eskainiko dugu. Gizartea dagoen egoera oso zaila dela dakigu, hori dela eta, egoera hau aldatu dezakeen produktu bat asmatu egin dugu.